

[e]kultura

80

IRAILA 2009 SEPTIEMBRE



musika / música  
**Mursegó**

**Arrateko Amaren Jaiak**


**Hitzen Lapurra  
Bertsotxongiloak**

# IRAILA 2009 SEPTIEMBRE

eguna  
día

orr.  
pag.

<b>1</b>	UMEAK ESKOLARA AYUDAS A ESTUDIANTES <b>dirulaguntzak ayudas</b> .....	4
	IX. JUAN SAN MARTIN BEKA	
	<b>beka beca</b> .....	16
	J. B. GISASOLA MUSIKA ESKOLA	
	<b>matrikulazioa matriculación</b> .....	17
	AEK EUSKATEGIA	
	<b>matrikulazioa matriculación</b> .....	18
<b>2</b>	UDAL EUSKATEGIA <b>matrikulazioa matriculación</b> .....	18
	SKYPE	
	<b>KZGunea</b> .....	18
<b>3</b>	HERRAMIENTAS GOOGLE IT-TXARTELA	
	<b>KZGunea</b> .....	18
<b>4</b>	FIRMA ELECTRÓNICA IT-TXARTELA	
	<b>KZGunea</b> .....	18
<b>7</b>	ARRATEKO AMAREN JAIAK <b>jaiak fiestas</b> .....	6
	CURSO DE INTERNET BÁSICO+e-administración	
	IT-TXARTELA	
	<b>KZGunea</b> .....	18
<b>8</b>	ARRATEKO AMAREN JAIAK <b>jaiak fiestas</b> .....	6
<b>9</b>	WIKIPEDIA <b>KZGunea</b> .....	18
<b>10</b>	YOUTUBE <b>KZGunea</b> .....	18
<b>11</b>	JARA LARREATEGI <b>Topaleku</b> .....	17
	IT-TXARTEA	
	<b>KZGunea</b> .....	18
<b>12</b>	LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA <b>jaiak fiestas</b> .....	8
<b>13</b>	ARRATEKO AMAREN JAIAK <b>jaiak fiestas</b> .....	6
<b>14</b>	KEZKA DANTZA TALDEA <b>matrikulazioa matriculación</b> .....	18
<b>15</b>	IT-TXARTEA <b>KZGunea</b> .....	18
<b>17</b>	IT-TXARTEA <b>KZGunea</b> .....	18
<b>21</b>	AFARIKETAN <b>matrikulazioa matriculación</b> .....	17
	CURSO DE INTERNET BÁSICO+e-administración	
	SKYPE	
	IT-TXARTEA	
	<b>KZGunea</b> .....	18



eguna  
díaorr.  
pag.

1

7



14



21



28



- 22** AFARIKETAN  
**matrikulazioa matriculación** ..... 17
- 23** AFARIKETAN  
**matrikulazioa matriculación** ..... 17
- 24** AFARIKETAN  
**matrikulazioa matriculación** ..... 17  
HERRAMIENTAS GOOGLE  
**KZGunea** ..... 18
- 25** MARIA TERESA UNZETA  
**Topaleku** ..... 17  
AFARIKETAN  
**matrikulazioa matriculación** ..... 17  
IT-TXARTEA  
**KZGunea** ..... 18  
MURSEGO  
**musika música** ..... 20
- 26** HITZEN LAPURRA. BERTSOTXONGILOAK  
**literatura literatura** ..... 12
- 27** BANDA DE MÚSICA CIELITO MUSIKA BANDA  
**musika música** ..... 17
- 28** AGINAKO JAIAK  
**jaiak fiestas** ..... 9
- 29** AGINAKO JAIAK  
**jaiak fiestas** ..... 9  
IT-TXARTEA  
**KZGunea** ..... 18
- 30** BLOGGER  
**KZGunea** ..... 18

- 2** EIBARKO KLUB DEPORTIBOA  
ARGAZKI TALDEA  
**erakusketa exposición** ..... 9
- 3** AGINAKO JAIAK  
**jaiak fiestas** ..... 9
- 4** AGINAKO JAIAK  
**jaiak fiestas** ..... 9
- 5** ARGAZKIGINTZA DIGITALA: LEHEN URRATSAK  
INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL  
**matrikulazioa matriculación** ..... 18

## **UMEAK ESKOLARA 2009**

**ONURADUNAK:** **1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Eibarko Erroldan daudenak.**

**LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:** Ume bakoitzeko, gehien jota, **60,10 €**

**LAGUNTZAREN ZERTARAKOA:** **Eskolarako umeak behar duen materiala erosteko -testu-libururik ez-, hau da: kirol materiala, erropak, oinetakoak...** Erosketak Eibarko dendetan egin behar dira irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean.

**BENEFICIARIOS:** **niños y niñas empadronados en Eibar y nacidos entre el 1 de enero de 1994 y el 31 de diciembre de 2003.**

**CUANTÍA:** un máximo de **60,10 €**

**OBJETO:** **compra de material escolar - excepto libros-: material deportivo, ropa, calzado...** Las compras se realizarán en establecimientos comerciales de Eibar entre el 1 de septiembre y el 1 de diciembre.



## **DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2009 AYUDAS A ESTUDIANTES**

**ONURADUNAK:** **irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikasleei zuzenduta.**

Ez dute laguntzarik jasoko ikasketa osagarriak egiten dabilzatenek (masterrak, doktoradoa, hizkuntza, informatika-erabiltzaile, gidatze-karneta...)

**1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoa izatea.**

**LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:** Ume bakoitzeko, gehien jota, **60,10 €**

**LAGUNTZAREN ZERTARAKOA:** **joan-otorrieta raka, ikasketa-materiala erosteko, kirolean jardutekoak, erropak edo oinetakoak eros-teko (testu-libururik ez) Eibarko dendetan.**

**BENEFICIARIOS:** **eibarreses/as que se hallen cursando estudios de enseñanzas regladas u ocupacionales,** excluyéndose formación complementaria (masters, doctorado, idiomas, Informática usuario, carnet de conducir, etc.)

**Nacid@s entre el 1 de enero de 1984 y el 31 de diciembre de 1993**

**CUANTÍA:** un máximo de **60,10 €**

**OBJETO:** **transporte o adquisición de material escolar, material deportivo, ropa y calzado, etc. (se excluyen libros de texto) en establecimientos comerciales de Eibar.**

**eskaerak aurkezteko epea**

**irailak 1 septiembre - abenduak 1 diciembre**

**informazioa**

**PEGORA**

**plazo de presentación de solicitudes**

**información**

## ARRATEKO AMAREN JAIAK FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE

**irailak 7, 8, 13 setiembre**



### Arrateko hitzordua

Arrateko Amaren jaiak prest daude, irailaren 7, 8 eta 13an ospatzeko Urtero bezala, jai batzordeak antolatutako egitarauak baserri giroaren eta folklorearen inguruko kutsua izango duela aipatu du José Luis González, Udaleko euskara, hezkuntza eta kultura departamenduko zuzendariak: “**Jaiok baserri inguruko kutsu eta ezaugarriak dituzte: dantza, prozesioa, gastronomía, bezalako ekitaldiak antolatzen dira. Hala ere, kontzertuek ere izaten dute haien lekuak**”. Arrateko jai batzordea hainbat kidek osatzen dute; Nerea Alustiza eta Javier Zorrakin zinegotziek, baserri-azoko ordezkariek eta eta kitto, Kezka, Betikuak, Andirao eta Club Deportiboko ordezkariek. “**Guztioan, proposamenak jaso eta jaiak antolatzen saiatzen gara**”, aipatu dute.

**Idi-probek** ere bere pisua izaten dutela gehitu du Jose Luis González, horretarako Vicente Areta, Lourdes Urzuriaga eta Andirao elkarteko zortzi gazteren lagunak jaso dute.

“**Arrate egunera beti jende andana hurbiltzen da. Eguraldiak eta asteburua izateak eragina badu ere, bertaratzen diren lagunak beti partaide aktiboak izaten dira jaiotan**”, gehitu du.

Las fiestas de Arrate están a punto. Un programa completo para los días 7, 8 y 13 de septiembre. “**El programa de Arrates tiene como característica principal su estrecha relación con el folklore y la cultura rural: baile, gastronomía, procesiones...**”, comentó el director del Departamento de Cultura, Euskera y Educación José Luis González.

La comisión de fiestas de Arrate está compuesta por los concejales Nerea Alustiza y Javier Zorrakin y las asociaciones Kezka dantza taldea, eta kitto, Betikuak, Andirao y Club Deportivo. “**Entre todos se recogen propuestas y se intentan organizar las actividades a realizar**”.

La **prueba de bueyes** suele ser otra de las actividades de las fiestas y Vicente Areta, Lourdes Urzuriaga y ocho jóvenes de la asociación Andirao son los encargados de ayudar en la organización.

“**Es verdad que la participación de las fiestas de Arrate depende mucho de la climatología y si toca fin de semana. Pero también es verdad que la gente que sube a Arrate es muy participativa y activa**”, comenta José Luis González.

## ARRATEKO AMAREN JAIAK FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE

### irailak 7, Arrate bezpera

- 18:00. **Meza** Arrateko Santutegian, eta ondoren, **Salbea**. Jarraian, **txupinazoa eta kanpai errepika**.
- 20:00. **Rock kontzertua** **Bizardunak** taldearekin, txosnen eskuistik.
- 21:00. **Bertso Afaria:** **Maialen Lujanbio, Angel Mª Peñagarikano, Andoni Egaña** eta **Sebastian Lizaso**. Gaijartzalea: **Asier Ibaibarriaga**. Kantabria jatetxean. Sarrera: 26 € (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Antolatzalea: "... eta kitto!".



### irailak 8, Arrate eguna

- 10:00. Azitaingo surtidoretik irten eta **Arratera igoera**, Ama Birjinaren pauso en bide zaharretik. **Salda, txorizoa eta ardoa** banatuko dituzte Zesteroko iturrian Jai Batzordeak antolaturik.
- 10:00. **Kittobola!**
- 10:30. **Kalejira** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskuistik.
- 11:00. **Meza Nagusia** Arrateko Santutegian. Kezka dantza taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren **prozesioa** Usartza Txistulari taldeak, Kezka Dantza Taldea, bertsolariek eta agintarieki lagundurik. **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Trikitilarik: Jainaga eta Narbaiza. Bertsolarik: Azpillaga, Meabebasterretxea eta Narbaiza.
- 12:30. Kezka Dantza Taldea eta Usartza Udal Txistulari Taldeak **Arrateko Amaren Dantzak** aurkeztuko dituzte zelaian: ezpata-dantza eta trokeo-dantzak.
- 13:30. **Trikitilari eta bertsolarien saioa**.
- 14:30. **Lagunarteko Bazkaria** Kantabria jatetxean.
- 17:00. Meabebasterretxea eta Narbaiza **bertsolarien saioa**.

### 7 de septiembre, Víspera de Arrate

- 18:00. **Misa** en el Santuario de Arrate y **Salve**. A continuación, **chupinazo y volteo de campanas**.
- 20:00. **Concierto de rock**, con el grupo **Bizardunak**, organizado por las txosnas.
- 21:00. **Bertso Afaria: Maialen Lujanbio, Angel Mª Peñagarikano, Andoni Egaña** y **Sebastian Lizaso**. Pondrá los temas **Asier Ibaibarriaga**. En el Restaurante Kantabria. Entrada: 26 € (Sagarbitxa - Kultu - Kantabria - ...eta kitto!). Organiza: "... eta kitto!".

### 8 de septiembre, Día de Arrate

- 10:00. **Subida a Arrate** desde Azitain, por el camino de los pasos de la Virgen. Reparto de **caldo, chorizo y vino** en la fuente de Zestero organizado por la Comisión de fiestas.
- 10:00. **Kittobola!**
- 10:30. **Pasacalle** con la Banda de Txistularis Usartza.
- 11:00. **Misa Mayor** en el Santuario de Arrate y espata-dantza de la Virgen de Arrate. A continuación, **procesión** con la Banda de Txistularis Usartza, Kezka Dantza Taldea bertsolaris y autoridades y espata-dantza de la Virgen de Arrate. Trikitilaris: Jainaga y Narbaiza. Bertsolaris: Azpillaga, Meabebasterretxea y Narbaiza.



- 17:30 - 21:00. **BETE ZAITEZ BAINA EMOZIOZ!**

**Alkoholaren inguruko kampaina informatzaile eta heitzetzailea.** Sasoia elkarreak ( Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebentzioa) alkoholemia kontrolak egingo ditu.



Antolatzaileak: Eibarko Udal eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.

- 17:30. **Dantza溶te txapelketa** 15 urtetik gorakoentzat. Gehien jota 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak.
- 19:00 - 23:00. **Dantzaldia DRINDOTS** taldearekin.

### irailak 13, Kofradia eguna eta baserritar jubilatuen eguna

- 10:30. **Simón Aldazabal XIV.** Antxitxiketaldia. **Alberto Zabalari omenaldia.** Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
- 11:00. **Meza Nagusia** Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolariekin. Meza ostean, aurreskua Kezka Dantza taldearen esku. Ondoren **prozesioa** Usartza Txistularien Bandak lagunduta.
- 12:00. **Pilota partiduak.** Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- 12:00. **Paella lehiaketa.**
- 12:30. **Herri kirolak.**
- 14:00. **Paella lehiaketaren sari banaketa.**
- 14:30. **Jubilatuentzako bazkaria** Krabelin Jatetxeen. Baserritar nagusiei opariak banatuko zaizkie. Trikitilarri eta bertsolariek ere parte hartuko dute.
- 17:30. **Idi probak.**

Antolatzailea: **Eibarko Udal**

Laguntzaileak: **Andirao Elkarte, "... eta kitto!", Betikuak, Eibarko Klub Deportiboa eta Kezka Dantza Taldea**

### irailak 20 ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XI. URTEURRENA

**Arratera igoera** Ama Birginaren pausoaren bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia.

- 12:30. **Danzas de la Virgen de Arrate** con Kezka Dantza Taldea y la Banda de Txistularis Usartza en la campa de Arrate.

- 13:30. Actuación de **trikitilaris y bertsolaris.**

- 14:30. **Comida de Hermandad** en el Restaurante Kantabria.

- 17:00. Actuación de los **bertsolaris** Meabebasterretxea y Narbaiza.

- 17:30 - 21:00. **LLENATE ¡PERO DE EMOCION!**

**Campaña informativa y educativa sobre el consumo de alcohol.** Sasoia Elkarte (Educación para la salud y prevención de drogodependencias) realizará pruebas de alcoholemia. Organiza: Ayuntamiento de Eibar y Dirección de Drogodependencias del Gobierno Vasco.

- 17:30. **Concurso de baile al suelto** para mayores de 15 años, por invitación (máximo, 10 parejas) .

- 19:00 - 23:00. **Verbena** con el grupo **DRINDOTS**

### 13 de septiembre, Día de la Cofradía y de los jubilados y las jubiladas

- 10:30. **XIV Carrera pedestre Simón Aldazabal. Homenaje a Alberto Zabala**. Salida en el Club Deportivo y subida hasta Arrate por el camino de Orbe.

- 11:00. **Misa Mayor** con los bertsolaris Gorrotxategi y Narbaiza. A continuación, **aurresku** a cargo de Kezka Dantza Taldea y **procesión**, acompañada por la Banda de Txistularis Usartza.

- 12:00. **Partidos de pelota.** Organiza: Club Deportivo Eibar.

- 12:00. **Concurso de paella.**

- 12:30. **Herri kirolak.**

- 14:00. **Entrega de premios del concurso de paella.**

- 14:30. **Comida de jubilados** en el restaurante Krabelin. Reparto de regalos a los mayores y actuación de trikitilaris y bertsolaris.

- 17:30. **Pruebas de bueyes.**

Organiza: **Ayuntamiento de Eibar**

Colaboran: **Andirao Elkarte, "... eta kitto!", Betikuak, Club Deportivo Eibar y Kezka Dantza Taldea**

### 20 septiembre XI FIESTA DE LAS ARRATES

**Subida a Arrate** por el camino de los pasos de la Virgen. Misa, comida, juegos y baile.

## LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA



### irailak 12

- 17:30. **Toka, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak.**
- 20:00. **Sardina jana.**

### irailak 19

- 20:30. Santanderko **La Encina abesbatzaren emanaldia**, San Pio X parrokian.

### irailak 26

- 16:00. **Flor txapelketa.**

### irailak 27

- 12:00. **Meza** San Agustín parrokian.
- 13:00. **Piscolabisa**
- 14:30. **Lagunarteko bazkaria** Arrate Hotelean.  
Egunean zehar "La Montaña" gaita taldearekin jai giroa.

### 12 de septiembre

- 17:30. **Campeonatos de toka, rana y cuchillo.**
- 20:00. **Sardinada.**

### 19 de septiembre

- 20:30. Actuación del **Coro Ronda La Encina** de Santander en la parroquia de San Pío X.

### 26 de septiembre

- 16:00. **Campeonato de flor.**

### 27 de septiembre

- 12:00. **Santa Misa** en la parroquia de San Agustín.
- 13:00. **Piscolabis**
- 14:30. **Comida de Hermandad** en el Hotel Arrate.  
*Los actos de este día serán amenizados por el grupo de gaitas "La Montaña".*

## AGINAKO JAIAK

### FIESTAS DE AGINAGA



#### irailak 28

##### **San Miguel bezpera**

- 18:00. **Kanpai iraulketa eta txupinazoa**  
jaiei hasiera emanez.

#### irailak 29

##### **San Miguel eguna**

- 11:00. **Meza nagusia** abesbatza eta Usartza txistulari bandarekin.
- 12:00. **Lunch-a eta umeendako jolasak.**
- 14:00. **Lagunarteko bazkaria** Usartza txistulari bandarekin.

#### urriak 3

##### **Briska txapelketa.**

- 17:30. **Umeendako jolasak:** gaztelu puzgarria, pelota partiduak, diskoteca eta txokolate jana.
- 21:00. **Lagunarteko afaria.**
- 23:00. **Suzko erroberak.**
- 23:00. **Erromeria, KUPELA** taldearekin. Goizaldera, **txokolate jana.**

#### urriak 4

##### **Meza nagusia** abesbatzarekin.

- 11:45. **ZERUTXU dantza taldearen emanaldia.**
- 12:30. **Lunch-a eta Gorritiren abereak.**
- 14:30. **Paella jana herrikoia** trikitilariekin alaituta.
- 17:00. **Idi probak.**

#### 28 de septiembre

##### **Víspera de San Miguel**

- 18:00. **Volteo de campanas y chupinazo** de inicio de fiestas.

#### 29 de septiembre

##### **Día de San Miguel**

- 11:00. **Misa mayor** con coro y la Banda de Txistularis Usartza.
- 12:00. **Lunch y juegos infantiles.**
- 14:00. **Comida de hermandad**, con la Banda de Txistularis Usartza.

#### 3 de octubre

##### **Campeonato de brisca.**

- 17:30. **Juegos infantiles:** castillo hinchable, partidos de pelota, discoteca y chocolatada.
- 21:00. **Cena de hermandad.**
- 23:00. **Fuegos artificiales.**
- 23:00. **Romeria**, con el grupo **KUPELA**. De madrugada, **chocolatada.**

#### 4 de octubre

##### **Misa mayor** con coro.

- 11:45. Actuación de **ZERUTXU dantza taldea.**
- 12:30. **Lunch y Gorriti y sus animales.**
- 14:30. **Paellada popular** amenizada por trikitilari.
- 17:00. **Pruebas de bueyes.**

## Berbetan indartsuago

**Berbetan** llegará con más fuerza y nuevos aires este nuevo curso. ...eta kitto! Euskara elkartea quiere dar un nuevo empujón al proyecto que tiene como finalidad **proponer ámbitos naturales para practicar el euskera**. Todo el que quiera participar está invitado, sólo tiene que dirigirse a la asociación ...eta kitto!.



**Euskaraz hitz egiteko aukera indartuko du eta kitto!** Euskara elkartea datorren ikasturtean. Proiektu horrek **zazpi urte** daramatza euskaldun zahar eta berriak elkartzen, **euskararen erabilera bultzatu eta indartu** nahian. Euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei edo berba egiteko aukera gutxi dutenei lagun euskaldunak eskaintzea du helburu. Hala azaldu du Maider Aranberrik ...eta kitto! Euskara elkarteko koordinatzaileak..

Proiektuak sei urte bete ditu, horregatik bultzada indartsu bat emateko garaia dela erabaki du...**eta kitto! Euskara Elkartea, AEK eta Udal Euskaltegiaren** babesarekin.

Hezurdura berria izango du Berbetan proiektuak. Barne egituraketa izango ditu aldaketa nagusiak. Hala, orain arteko bilerez gain bestelako jarduerak eskainiko dituzte urtean zehar: **txangoak, ikastaroak, afariak, Mintza Eguna...** orain artekoak indartzea da helburua. Hiztunen arteko ezaugarriak, zaletasunak, ordutegiak aztertu eta mintza-taldeak egiteko proposamenak lutzatuko zaizkie Berbetan programan parte hartu nahi dutenei.

Proiektuaren atze aldean **batzorde berri eta indartuago bat** egongo da: Udal euskaltegiko eta AEKko kide bana, Udaleko euskara teknikaria eta eta kitto elkarteko koordinatzailea. Hala ere, partehartzailerik garrantzitsuenak hiztunak izango dira: euskaldun zahar zein berriak. Haien partehartzaa berebizikoa da proiektuak aurrera egin nahi badu.

**Izena eman nahi duenak ...eta kitto elkartera zuzen daiteke.**

**Eibarren euskaraz dakitenak %51 inguru badira ere, kalean erabiltzen dutenak askoz gutxiago dira %20-25 inguruan dabil datua.** Bestalde jende asko dabil euskara ikasten eta ikasitakoa erabili nahian. Horretarako **Berbetan** egitasmoak aukera oso ona ematen die euskaldun berriei praktikatzeko, bai beraien artean, bai euskaldun zaharrekin. Egitasmoaren bitartez **aisialdian euskaraz** jarduten duten taldetxoak osatu nahi dira, eta poliki-poliki kalean euskaren presentzia areagotu. Talde, biko-te edo hirukote horiek modu natural samarrean osatu nahi dira, hau da, izan daiteke kafe hartzeko elkartzea, edo parkean umeekin egoteko edo paseo bat ematera joateko, kirola egiteko... **Helburua jendeari euskaraz hitz egiteko aukerak ematea da, espazioak zabaltzea...**



### Xabier Zubizarreta AEKKo koordinatzailea:

"Alde batetik, euskararen erabile-rak Eibarren izan duen jaitsiera ikusita eta bestetik, gure ikasle batzuek ez daukatenez inguru hurbilik ikasitakoa erabiltzeko "BERBETAN" egitasmoari bultzada ematea erabaki genuen. Beraz, datorren ikasturtean euskaltegi bien inplikazioa handia-goa izango da".

### Nerea Beitia Udal euskaltegiko kidea:

"Euskaltegietako ikasle askok ez daukate bertan ikasitakoa kalean erabiltzeko aukera handirik, euskaran jarduteko ingururik, lagunik, ohiturarik, ... Berbetan egitasmoa hutsune hori betetzeko egokiera ezin hobea da: lagun taldea osatu, elkartu eta euskaran egin. Errazagorik?"

### Ana Mari Zubiarrementeria Berbetan programako partaidea:

"Bi euskaldun zahar eta lau berri aritu gara. Nolako interesa zuten ikustea harritu ninduen. Asko dakite baina jakintza hori praktikan ipintzeko aukerarik ez dute izaten. Poza emate dit halako interesa dutela ikustea. Bestalde, guk euskaldun zaharrok, haiiekin berri-tzeko aukera izan dugu. Beraien jakintzatik berrizteko".

## HITZEN LAPURRA BERTSOTXONGILOAK

irailak 26 septiembre 18:00  
Umeen liburutegia Biblioteca infantil

**3-8 urte bitarteko  
umeentzat  
niños y niñas  
entre 3 y 8 años**

Gidoia / Guión:  
**Manu Gomez**  
**Enkarni Genua**

Antzezleak / Reparto:  
**Gorka Tolosa**  
**Erika Lagoma**  
**Alex Tello**  
**Ainhoa Alberdi**



**Ahoz aho darabilgu egunero hitza.** Gizakien arteko komunikazioan eta bizitzan bertan aparteko garrantzia dute hitzek, zalantzarak gabe. **Hitzak dira protagonista** Ander eta Amaia txotxongiloen, eta, Lide eta Ximon antzezleen istoriotxoan. Hiru ordu laurdenen bueltan, hitzarekin ibiliko dira jolasean txotxongiloak, antzezleak, baita zortzi urte bitarteko ikus-entzuleak ere.

Herriko plazan gustura dabilta jolasean Lide, Ander, Ximon eta Amaia. Hitzak dira jolas, eta herriko plazan itsatsi dituzten hitzekin kantatuko dute zenbait kopla, zenbait...

Plazatik alde egin, eta orduantxe ezusteko! Zapi beltzez estalita agertu da norbait misterioz beterik... Lapurra, hitzen lapurra! Ataka gaitzetik irten beharrean, ezustekoren bat jartzea erabaki dute geure lagunek, eta, haurrek lagunduta jakingo dute, azkenean, nor den lapur zikoitz hura.

Nor da baina, lapurra?

Guztien artean koplak asmatu eta kantatuko dituzte hitzak erabiliz.

Hau da haurren poza hitzen jolasean!

Musika instrumentuek ere jantzi egiten dute kantua!


## Aprender idiomas

Con el nuevo curso llegan los nuevos proyectos. La biblioteca municipal Juan San Martín pondrá a disposición del usuario un fondo de material de autoaprendizaje de idiomas. Este proyecto de formación permanente de idiomas se llevará a cabo con la ayuda de Kutxa y tendrá como objetivo principal ofrecer diferente material de autoaprendizaje que el usuario podrá utilizar en la misma biblioteca o en su casa. **"Las bibliotecas de hoy en día no sólo responden a la lectura, están dirigidas a dar otros servicios. Además no sólo es un lugar para los estudiantes. Queremos ofrecer diferentes servicios para diferente tipo de usuario"**, comenta la coordinadora de la biblioteca municipal.

El inglés, francés, alemán, italiano y árabe son algunos de los idiomas que se podrán aprender junto con el euskera y el castellano. **"Cada vez hay más personas que quieren aprender euskera o castellano pero su idioma materno es extranjero. Por eso también queremos responder a esas necesidades"**, comenta.

Desde el curso pasado, se pueden encontrar diferentes periódicos internacionales en más de 30 idiomas en la biblioteca.

La formación junto con el autoaprendizaje de idiomas son uno de los objetivos más trabajados estos últimos años en la biblioteca municipal de Eibar: cursos de informática, taller de empleo (para aprender a buscar trabajo), talleres para estudiantes en inglés, nuevas tecnologías... **"Queremos dar un servicio lo más amplio posible para todos los habitantes y que responda a diferentes necesidades"**.



### BIBLIOTECA JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA

**astelehena - ostirala**

9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30

**lunes - viernes**

**irailaren 8an eta asteburuetan itxita  
cerrada el 8 de septiembre y los fines de semana**

**irailaren azken asteburuan zabalduko da  
apertura el último fin de semana de septiembre**

10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**+ ikasleendako ordutegi berezia**

**irailak 1 - 11**

24:00 arte (**astelehena - osteguna**)

**+ horario especial estudiantes**

**1 - 11 septiembre**

**hasta las 24:00 (lunes - jueves)**

## "ASIER ERRASTI" EIBARKO X. LABURMETRAIA JAIALDIA X FESTIVAL DE CORTOMETRAJES DE EIBAR "ASIER ERRASTI"



**Dei-egilea:** Eibarko Udala, Plano Corto Kultur Elkartearen laguntzarekin.

**Convoca:** Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración de la Asociación Cultural Plano Corto.

Lehiaketan bi sail izango dira: fikzioa eta animazioa, DVDz eginda.

2 secciones a concurso: ficción y animación, en formato DVD.

lanak aurkezteko epea **urriak 9 octubre** plazo de admisión de obras

**informazioa**

**PEGORA**

**información**

## INDALECIO OJANGUREN XXII. ARGAZKI LEHIAKETA XXII CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN

**008/2009 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN SAILKAPENERAKO BALIAGARRIA  
CLASIFICATORIO PARA EL CERTAMEN ARGIZAIOLA 008/2009**



**Dei-egilea:** Eibarko Udala, Udako Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin.

**Convoca:** Ayuntamiento de Eibar, con la colaboración del Club Deportivo Eibar.

**Lanak:** Gehienez ere 3 argazki zuri eta beltzean, eta 3 koloretan. Inoiz saritu gabeak izan beharko dira.

**Obras:** Máximo de 3 fotografías blanco y negro y 3 color por participante, no premiadas en ningún otro certamen.

### EGUTEGIA / CALENDARIO

lanak aurkezteko epea

**urriak 10 octubre**

plazo de admisión de obras

erabakia

**urriak 17 octubre**

fallo público

sari-banaketa

**urriak 30 octubre**

entrega de premios

erakusketa

**urriak 30 octubre - azaroak 15 noviembre**

exposición

**informazioa**

**PEGORA**

**información**

## "SANANDRESAK 2009 EIBARREN" KARTEL LEHIAKETA CONCURSO DE CARTEL "SANANDRESAK 2009 EIBARREN"

lanak aurkezteko epea

**urriak 22 octubre**

Plazo de admisión de obras

**informazioa**

**PEGORA**

**información**



## EXPOADINTSU

Pertsona nagusiendako Azoka

Feria de las Personas Mayores

irailak 29, 30 setiembre urriak 1 octubre  
10:00 -14:00 // 15:30 - 19:30 frontón Astelena frontoia



50 urtetik gorakoei, sektorean lan egiten dutenei eta pertsona nagusien senitartekoei zuzenduriko azoka izango da.

Azokaren helburua Debabarrenako nagusientzat dauden baliabide, zerbitzu eta produktuen berri ematea da. Eskaintza horiek erakundeek, empresa publiko nahiz pribatuek edo bestelako elkarteeek ere egin ditzakete. Horretarako **elkarteen, empresen nahiz erakundeen stand-ak** jarriko dira, eta ondo pasatzeko **iharduera programa** ere izango da.

Eibarko Udal, Debegesa (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte), Biztu, Pertsona Nagusien Kontseilua, Deparkel eta Ikasten dira azokaren antolatzaileak.

Se trata de una feria para personas mayores de 50 años, personas que trabajan en el sector y familiares de personas mayores.

El objetivo es informar a las personas mayores de Debabarrena sobre los recursos, servicios y productos que están dirigidos a ellas. Estos servicios pueden ser ofrecidos por las instituciones, empresas públicas o privadas y otro tipo de entidades como asociaciones. Para ello se contará con **stands de asociaciones, empresas e instituciones**, y además hay una **programación de actos lúdicos**.

La feria está organizada por el Ayuntamiento de Eibar, Debegesa (Sociedad para el Desarrollo Económico de Debabarrena), Biztu, Consejo Comarcal de Personas Mayores, Deparkel e Ikasten.

## IX. JUAN SAN MARTIN BEKA 2009



Dei-egilea: **Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin.**  
Ikerketa esparruak: **ARTEA**



informazioa  
epea

**PEGORA**  
**irailak 1 - urriak 11**

información  
plazo

### IX. Juan San Martin beka abian

**Ikerlari euskaldunei zuzendutako beka** da Juan San Martin eta azken zortzi urtean emaitza oparoak eman dituena. Eibarko Udalak eskaintzen duen beka da, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin. Aurtengo edizioa oso indartsu dator **9.000 eurotako diru kopurua** emango bai. Ikerketa esparruak Juan San Martinek bere bitztan zehar landutakoak dira. Hala, aurten, **Artea** izango da ikerketa esparrua eta urriaren 11 aurretik aurkeztu beharko da ikerketa proiektua Eibarko udaletxeko Pegoran (Herritarren zerbitzurako bulegoa).

**Azken zazpi urteotan** gora egin du eskaera kopuruak eta guztira ia **40** izan dira beka lortzeko **aurkeztu diren lanak**. Lizentziatu eta diplomatuei zuzendutako beka da eta urtebeteko epean ikerketa lana burutu behar izaten dute hautatutako ikerlariek. Udaleko euskara teknikari Junkal Txurruka esanetan aukera egokia da hainbat ikerlarirentzat: **“Aukera polita da, bai karrera bukatu berri duten ikerlari gazteentzat, bai urteetan lanean dihar-duten ikerlari adituagoentzat”**.

Orain arteko irabazleen artean denetik izan da: **Patxi Salaberri** (2001), Gotzon Iparragirre (2002); **Aitor Gerenabarrena, Asier Arregi eta Imanol Manterola** (2003); **Idurre Alonso** (2004), **Joxe Azurmendi** (2005), **Maia Duguine** (2006), **Aitzol Loiola** (2007). Azken edizioan ez zen bekarik eskaini, epaimahairen esanetan nahikoa maila ez zutelako aurkeztutako ikerketa-proiektuek.

**Aitzol Loyola**

### **“Ez dira ikerketa egiteko aukera asko izaten”**

Aitzol Loyolak 2007ko beka deialdiko irabazlea izan zen eta laster aurkeztuko du bere lana. Eibar, gazteria eta mugimenduak aztertu ditu musika ardatz dituela.

#### **Zer jaso duzu zure ikerketa proiektuan?**

Ikerketa ezberdinak agerian utzi dute gazteriak duen ezaugarri nagusiena aniztasuna dela. Hau da, gazteen artean bizitza ulertzeko eta bizitzeko modu oso ezberdinak daudela, eta Eibarko gazteria ez da salbuespna. Bada, baina, apena ikertu den gazte sektore bat. Bitarteko instituzionaletik at, egunerokotasunean dituzten beharren aurrean alternatiba propioak sortzen dituzten gazteak. Proposamen propioak dituzten gazteak. Sektore konkretu hau aztertzen ari naiz.

#### **Zein da Eibarko gazteriaren berezitasuna alor horretan?**

Esan liteke Eibarko gazteriaren gutxiengoa dela jarrera eta portaera hau duena, baina ekarpene oso interesanteak egiten dituzte. Batetik esparru propioak garatu dituzte, sormena eta ardura indibidual eta kolektibotik sortutako espazio propioak. Horietan garatu dira hainbat gazte ekarpene (besteak beste sorkuntza musikalak). Bestetik Eibar herri gisa eraikitzeko nozio interesanteak proposatzen dituzte. Adibidez, egungo krisiaren aurrean, erantzun posibleak garatzeko oso interesanteak diren hainbat nozio dituzte.



#### **Zergatik aukeratu zenuen Juan San Martin beka?**

Gaia gustuko dut eta ikerketa bat burutzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Ez dira ikerketak egiteko aukera asko izaten. Dauden urriak ez aprobetxatzea pena bat da.

#### **Bestelako bekekin egin duzu lan?**

Ez. Lehen aldia izan da. Lanordutatik kanpo egin beharreko lana da, eta horrek asko baldintzatzen du. Halere beka hau aukera ederra da.

**BANDA DE MÚSICA CIELITO MUSIKA BANDA**

kontzertua

concierto

irailak 27 septiembre 12:30 teatro COLISEO antzokia

ERAKUSKETAK EXPOSICIONES

**TOPALEKU****JARA LARREATEGI**

irailak 11 - 20 septiembre

**MARIA TERESA UNZUETA**

irailak 25 septiembre - urriak 4 octubre

IKASTAROAK CURSOS

**Bertsotan ekin eta segi**

Ikasturte berriari hasiera emateko prest dago **Eibarko bertso eskola**. Urte bete da bertso eskola zabaldu zute-la **DBHko eta LHko ikasleei zuzendua** (helduentzako bertsoskola ere bada). Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak utzitako material eta metodologiarekin egin dute lan eta hala jarraituko dutela azaldu dute, gustura aritu direla.

Harrera oso ona izan zuen eskolak iaz. **"Bospasei ikaslerekin hasi ginen eta dozena batekin bukatu. Balorazioa oso positiboa izan da"**, azaldu du **Asier Ibarbarriagak Deba Barrenako bertso eskolako koordinatzaileak**. Horregatik ikasturte berri honetan ere izango da bertsotan ikasteko aukera. **Eibarko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskoletan zabalduko da informazioa** baina interesa duen edozeinek har dezake parte. Portalean izaten dira ikas-saioak eta iaz bezala bi talde izango dira: **heldorfen taldea eta gaztetxoen taldea**.

**J. B. GISASOLA  
MUSIKA ESKOLA**matrikulazioa / matriculación  
irailak 1 - 10 septiembre

informazioa

PEGORA

información

**AFARIKETAN**Matrikulazioa / matriculación  
irailak 21, 22 septiembre

16:00 - 18:00 ludoteketan (Amaña, Urki, Urkizu)

irailak 23, 24, 25 septiembre

10:00 - 13:00 PORTALEAn.

informazioa

ASTIXA

información

Zezenbide, 7 Tel . 943 206 231



## AEK EUSKALTEGIA

matrikulazioa / matriculación  
irailak 1 - 28 septiembre

informazioa AEK EUSKALTEGIA información

Sostoatarren, 1 Tel . 943 201 379



## KEZKA DANTZA TALDEA

matrikulazioa / matriculación  
irailak 14, 15 septiembre

18:00 - 19:00 PORTALEAñ

informazioa KEZKA DANTZA TALDEA información

Tel. 943 530 440



## UDAL EUSKALTEGIA

matrikulazioa / matriculación  
irailak 2 - 23 septiembre

informazioa UDAL EUSKALTEGIA información

Bista Eder, 10 Tel . 943 700 912



### ARGAZKIGINTZA DIGITALA:

#### LEHEN URRATSAK

#### INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL

matrikulazioa / matriculación  
urriak 5 - 16 octubre

Urriko eta azaroko astelehen eta  
azteazkenetan 19:00etatik 21:30era  
PORTALEAñ.

Los lunes y miércoles de octubre y noviembre

de 19:00 a 21:30 h. en PORTALEA

informazioa PEGORA información



### curso de internet básico + e-administración

- irailak 7 - 18 septiembre .... 9.00-11.00
- irailak 7 - 18 septiembre .... 18.00-20.00
- irailak 21 septiembre  
urriak 2 octubre ..... 9.00-11.00
- irailak 21 septiembre  
urriak 2 octubre ..... 18.00-20.00

### skype

- irailak 2 septiembre ..... 16.00
- irailak 21 septiembre ..... 11.00 (eus)

### herramientas google

- irailak 3 septiembre ..... 18.00 (eus)
- irailak 24 septiembre ..... 16.00

### firma electrónica

- irailak 4 septiembre ..... 16.00 (EUS)

### wikipedia

- irailak 9 septiembre ..... 16.00 (eus)

### youtube

- irailak 10 septiembre ..... 11.00

### blogger

- irailak 30 septiembre ..... 16.00 (eus)

### it\_txartela

certificado de usuario de Tecnologías de la  
información.

Toda la información sobre las pruebas en

[www1.eeuskadi.net](http://www1.eeuskadi.net)

### Pruebas de septiembre:

- irailak 4-11-15-25 septiembre ... 11.00
- irailak 3-7-17-21-29 septiembre .. 16.00

**PEGORA** - Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - [pegora@eibar.net](mailto:pegora@eibar.net)

**irailak 1-15 septiembre**

astelehena - ostirala 9:00 - 13:30 lunes - viernes

**irailak 16-30 septiembre**

astelehena - ostirala 9:00 - 13:30 lunes - viernes  
astelehena - osteguna 17:00 - 19:30 lunes - jueves

**PORALEA** Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 [cultura.ei@eibar.net](mailto:cultura.ei@eibar.net)

**irailak 1-7 septiembre**

astelehena - ostirala 9:00 - 20:30 lunes - viernes

**irailak 8 septiembre itxita / cerrado****irailak 9-30 septiembre**

astelehena - ostirala 9:00 - 21:30 lunes - viernes

**irailaren azken asteburuan zabalduko da / apertura el último fin de semana de septiembre**

larunbata 10:00 - 13:30 / 16:00 - 21:00 sábado  
igandea 10:00 - 13:00 / 16:00 - 21:00 domingo

**ERAKUSKETA ARETOA****SALA DE EXPOSICIONES**

asteartea - igandea 18:30 - 20:30 martes - domingo

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA** tel. 943 708 437 [biblioteca.ei@eibar.net](mailto:biblioteca.ei@eibar.net)

**astelehena - ostirala** 9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30 **lunes - viernes**

**irailaren 8an eta asteburuetan itxita / cerrada el 8 de septiembre y los fines de semana****irailaren azken asteburuan zabalduko da / apertura el último fin de semana de septiembre**

10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

+ ikasleendako ordutegi berezia **irailak 1 - 11** 24:00 arte (**astelehena - osteguna**)  
+ horario especial estudiantes **1 - 11 septiembre** hasta las 24:00 (**lunes - jueves**)

**ARMAGINTZAREN MUSEOA** tel. 943 708 446 [museo.ei@eibar.net](mailto:museo.ei@eibar.net) **MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA**

[www.armia-eibar.net](http://www.armia-eibar.net)

**asteartea - ostirala** 16:00 - 20:00 **martes - viernes**

**irailaren azken asteburuan zabalduko da / apertura el último fin de semana de septiembre**

16:00 - 20:00

**teatro COLISEO antzokia** Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 [cultura.ei@eibar.net](mailto:cultura.ei@eibar.net)

**sarrerak** leihatila - asteartetan, 20:00etik 21:30era, eta emanaldi egunetan ordu bat lehenago.

**entradas** taquilla - los martes, de 20:00 a 21:30 h., y una hora antes los días de función.

SERVIKUTXA TELEKUTXA 943 001 200

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

**ERROTA GAZTELEKUA** Karmen, 3 tel. 943 820 105

**irailak 1 - 13 septiembre itxita / cerrado**

astelehena - osteguna 18:00 - 20:00 lunes - jueves

ostirala 17:00 - 21:30 viernes

larunbata, igandea 16:30 - 20:30 sábado, domingo

**Kz GUNEA** Karmen, 3 tel. 943 120 390

[www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net)

astelehena - ostirala 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 lunes - viernes

argitaritzalea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saila  
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale

**Obrak direla eta, PORTALEA** eraikineko instalazio eta sail guztieta sartzeko **Eulogio Gárate** kalean (PORALEA eraikinaren atzeldean) dagoen atea erabili beharko da. **Juan San Martin Liburutegira**, ostera, Umeen Liburutegitik sartu beharko da (**Bista Eder** kaletik). **Barkatu eragozpenak.**

Debido a las obras de **PORTALEA** el acceso principal a todas las instalaciones y departamentos del edificio está situado en la calle **Eulogio Gárate** (trasera del edificio PORTALEA), a excepción de la **Biblioteca Juan San Martín**, a la que se accederá por la actual Biblioteca Infantil (Calle **Bista Eder**)  
**Disculpen las molestias**

**MURSEGO**

irailak 25 septiembre 22:00 3 € teatro COLISEO antzokia

**Mursegó,  
un nuevo idioma**

**Mursegó** es el nuevo proyecto de **Maite Arroitajauregi**, su primer trabajo en solitario. Tras un largo camino de trabajo con diferentes grupos colectivos Anari, Lisabö, Napoka Iria o Kokein, ahora apuesta por Mursegó. Maite ofrece una **nueva forma de comunicarse** donde el violonchelo es el instrumento fuerte. Además, juega con las posibilidades que le ofrecen otros instrumentos: pedal loop station, casio, la pequeña percusión, el pandero, el órgano, el ukelele, su propia voz... Una nueva forma de comunicación que tendremos posibilidad de escuchar este mes en el Coliseo.

**Bakarka aritzen zaren lehen aldia da.****Zergatik aldaketa hau?**

Beti izan dut bakarka aritzeko gogoa. Dena dela, eskari baten ondorioz egin nuen salto proiektu honetara. Bilboko Larraskitu Club-ek jaso nuen bakarrik aritzeko eskaintza eta hala prestatu nuen bertako errepertorioa. Gero, beste kontzertu pare bat eman nituen Eibarko Gaztetxean eta Parisen.

**Pariseko kontzertua ere, beste jauzi bat izan zen, ezta?**

Gonbita jaso nuen eta bertaratu. Disketxe batek antolatutako jaialdia zen eta jendeak nire Cda erostera hurbildu zenean ez nuela halakorik erantzun behar izan nuen. Myspace-n tarterik nuen ere galdetu zidaten. Paristik bueltan bi lan horiek bete behar nituela pentsatu nuen eta hala egin nuen.

**Diskoa grabatu duzu?**

Beno, oso bizkor egindako grabaketa izan da. Oso modu naturalean, aurkezpen txartel bezala balioko didana. Beraz, egin dudan modua kontutan hartuta, gustura gelditu naiz. Bat(1)jarri diot izena; ingelesez sagu zaharra esan nahi du eta euskaraz zenbakia, hitz jokorako aukera eskaintzen du.

**Zer du ezberdina bakarrik aritzeak?**

Ba muturrak nabarmenagoak direla. Bakarrik igo behar izaten da eszenatokira eta horrek nahi duzuna egiteko aukera ematen dizu baina, era berean, ardura guztia zurea da. Ondo egiten baduzu oso betegarria izaten da. Gaizki irteten bada zure ardura da bakar-bakarrik. Bestalde, bakarrik aritzeak ere zure buruarekiko disiplina eskatzen du.

**Hainbat musika-tresna erabiltzen dituzu.**

Bai, baina nagusia biolontxeloa da. Bera dago

oinarri-oinarrian. Pedalarekin lan egiten dut.

Biolontxeloko piezak jotzen ditut eta grabatu. Bizpahiru kapa grabatzen ditut eta gero beste musika-tresnak sartzen ditut. Perkusio txikia, txindatak, kasioa, ahotsa, enbolo txirula, ukelelea... Batzuetan grabatzen ditut beste batzuetan gainetik jotzen dut. Momentuaren eta piezaren arabera.

**Pedalaren erabilpen hori arrunta da?**

Pedala bera egile askok erabiltzen dute baina egia da modu horretan erabiltzen dugunok gutxiago garela. Hala ere, bila hasiz gero aurkituko genituzke halako bakarlari batzuk.

**Nola azalduko zenioke egiten duzun musika entzuleari?**

Nire oinarriak klasikoak izan ziren eta horren kutsua du nire ibilbideak. Hala ere, pop alorrean sartuko nuke Mursegó. Inprobisazio puntu bat ere badu eta baita experimentazioa ere. Baina onena entzuleak berak sailka dezala da.

**Hemendik aurrera zer asmo duzu?**

Han eta hemen lotu ditut kontzertuak eta horrekin arituko naiz buru belarri.

**Bizkor ari zaizkizu kontzertuak irteten, ezta?****Nola egin duzu zabalkunde hori?**

Bai, egia esan nahikoa saio irten zaizkit hemen eta han. Interneteak pisu handia izan du, Myspacek. Gero, uste dut ahoz ahoko mezuak ere oso indartsu funtzionatzen duela halako kasuetan.

**Coliseoko kontzertuak izango du berezitasunik zuretzat?**

Seguruenik bestelako kontzertuetara etortzen ez den jendea hurbilduko da Coliseora: lagunak, familia... horrek egiten du berezi.